

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Lehenbizi testu bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikita daude bi atal (A eta B).
 - A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 puntu guztira)
 - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
 - Gaia eta laburpena (1,5 puntu)
 - Hizkuntza (1,5 puntu)
 - B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 puntu guztira)
 - Gutuna edo dekalogoia (4 puntu)
 - Literatur testua (1 puntu)

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

Denbora opari

Ez du jatorri ospetsua oraintxe adieraziko dudan aipuak. Ez dator ez filosofo greziarrendik, ez atzoko idazle unibertsal horietako batengandik. *Haizeak eraman zuena* filmetik dator. Han, hasieran azaltzen da honako esaldia: «bizitza denboraz egina dago» edo «denbora da bizitzaren osagai nagusia» edo «bizitza denbora da». Ez naiz itzultzaile.

Niri behintzat asko kostatu zait denbora bizitza dela ulertzea, edo bizitza denbora dela. Baina ikasi dut eta, batzuetan, neure buruari esaten diot halakoari denbora oparituko diodala, besteari esan gabe, baina jakinda denbora gehiago dudala honezkero atzetik aurretik baino. Arratsalde bat, adibidez, edo paseo txiki bat emanez norbaiti konpainia eskainiz.

Noski, norbaiti opari bat erosten diozunean, nire kasuan behintzat, denboraren eta lanaren truke irabazitakotik dator dirua, ez zerutik, ez inolako herentziatik. Beraz, beti dago denbora opari baten azpian. Baina batzuetan zuzenean denbora da oparia eta daramagun bizimodu zoro honetan, sarritan beste zerbaiti edo norbaiti kendutako denbora da halakoari eskaintzen dioguna.

Horregatik ere miresten ditut esparru desberdinetan borondatezko lana egiten dutenak, bizitzaren zati bat eskaintzen diotelako helburu horri eta, gainera, galdetzen badiezu, beti esango dizute emandakoa baino gehiago jasotzen dutela.

Eskuzabaltasun horrek distira handiagoa du, jakin badakigulako ez dakigula, kasu gehienetan, zenbat denbora dugun aurretik. Azken batean, pertsonak bitan bana daitezke denbora oinarri hartuta: denbora sobran dutenak eta aski denborarik ez dutenak, denborarekin zer egin ez dakitenak eta nahi adina denbora ez dutenak.

Duela gutxi hurbileko bati galdetu nion zer opari nahi zuen Eguberrietarako, eta segundo baten buruan erantzun zidan denbora nahi zuela, besterik ez. Denbora, ordea, ez dago salgai.

Arantxa Urretabizkaia
El Correo
(moldatua)

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 PUNTU)

A.1 ULERMENARI BURUZKO GALDERAK (2 puntu)

Aukeratu erantzun egokiena. Nahikoa da erantzun-orrian zenbakia eta letra adieraztea.

1. Egileak...

- a) Idazle ospetsu baten aipuaren bidez hasten du testua.
- b) Greziako filosofo klasiko baten aipuaren bidez hasten du testua.
- c) Film batean esaten den esaldi baten bidez hasten du testua.
- d) *Haizeak eraman zuen* kantuko pasarte baten bidez hasten du testua.

2. Idazleak dioenaren arabera,...

- a) Berehala ulertu zuen bizitza denbora dela.
- b) Oraindik ere ez du ulertu bizitza denbora dela.
- c) Oraindik ere ez du ulertu bizitza denbora dela, bere buruari ideia hori errepikatu arren.
- d) Askok kostata bada ere, ulertu du bizitza denbora dela.

3. Testuaren arabera,...

- a) Arratsaldea inorekin pasatzea bada denbora oparitzeko modu bat.
- b) Idazleak denbora gutxi du inori oparirik erosten joateko.
- c) Idazleak denbora gutxi izan du orain arte, baina hemendik aurrera gehiago izango duelakoan dago.
- d) Denbora duenean, idazleak nahiago du arratsaldea opariak erosten pasatu.

4. Idazlearen esanetan,...

- a) Oparitzen den denbora lanari kendu behar zaio.
- b) Denbora zuzenean oparitzen ez denean ere, denbora dago, besteak beste, egiten diren oparien azpian.
- c) Denbora oparituz gero, ez da geratzen borondatezko lanak egiteko tarterik.
- d) Dugun bizimodu zoroari aurre egiteko, aukera bat da inori denbora kentzea.

5. Testuaren arabera,...

- a) Borondatezko lana egiten duen jendeak dio ematen duena baino gehiago jasotzen duela.
- b) Borondatezko lana egiten duen jendeak jasotzen duena baino gehiago ematen du.
- c) Idazleak ez du begi onez ikusten borondatezko lana, ordaindu gabea baita.
- d) Esparru jakin batzuetan egiten den borondatezko lana miresten du, baina ez edozein lan.

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A.2 GAIA ETA LABURPENA (1,5 PUNTU)

Testuingurua

Lagun artean eztabaidan ari zinetela, beste lagun bat heldu da zuengana: eztabaidagai duzuen testua ez duela ezagutzen esan dizue, eta zeri buruzkoa den azaltzeko eskatu.

A.2.1 Adieraz ezazu, zure hitzekin eta esaldi batean, zein den irakurritako testuaren gaia. (0,5 puntu)

A.2.2 Egin ezazu, **labur eta testu josian**, “Denbora opari” izeneko testuaren laburpena (**gehienez 60 hitz**). (1 puntu)

A.3 HIZKUNTZA (1,5 PUNTU)

Testuingurua

Irakurritako eta eztabaidagai izandako artikuluak berebiziko interesa sortu du zuegan, eta zeuk ere gaiari buruz idaztea erabaki duzu; izan ere, zure esperientzia eta ikuspegia beste pertsona batzuentzat lagungarri izan daiteke. Testua ekoizteko prestaketa-lana egin behar duzu; zehazki, baliabide gramatikalak eta lexikoak landu behar dituzu.

A.3.1 “Denbora opari” testuko ideia batzuk interesgarriak iruditu zaizkizu, baina ez dituzu beren horretan eman nahi: berridatz itzazu azpiko pasarteak, bakoitzaren amaieran zehazten diren osagaiak erabiliz. (0,5 puntu)

- a) “...asko kostatu zait denbora bizitza dela ulertzea edo bizitza denbora dela. Baina ikasi dut...”.
Erabili beharreko osagaia: Nahiz eta
- b) “...denboraren eta lanaren truke irabazitakotik dator dirua, ez zerutik, ez inolako herentziatatik”.
Erabili beharreko osagaia: baizik eta
- c) “denboraren eta lanaren truke irabazitakotik dator dirua. Beraz, beti dago denbora opari baten azpian”.
Erabili beharreko osagaia: -(e)nez
- d) “miresten ditut esparru desberdinetan borondatezko lana egiten dutenak, bizitzaren zati bat eskaintzen diotelako helburu horri”.
Erabili beharreko osagaia: izan ere
- e) “galdetzen badiezu, beti esango dizute emandakoa baino gehiago jasotzen dutela”.
Erabili beharreko osagaia: -z gero

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A.3.2 Halaber, trebatzen jarraitzearen, honako adizki hauek aldatu behar dituzu; zehazki, ondoren adierazitako moduan eman behar dituzu: (0,5 puntu)

- a) *adieraziko dudan*. Eman lehenaldi burutuan.
- b) *dator*. Eman geroaldian.
- c) *oparituko diodala*. Bihurtu alegiazko edo hipotetiko.
- d) *dago*. Eman ahaleran.
- e) *eskaintzen diotelako*. Eman baldintza erabiliz.

A.3.3 Zure idazlanari begira, nahiago duzu “Denbora opari” testuko hitz batzuk ez errepikatu, testua pertsonalagoa egiteko. Horretarako, sinonimoen zerrendatxo bat osatu behar duzu. Eman honako hitz hauen sinonimo bana edo azal ezazu, zure hitzen bidez, hitz bakoitzaren esanahia: (0,5 puntu)

- a) *ospetsu*
- b) *honezkero*
- c) *beraz*
- d) *esparru*
- e) *helburu*

B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 PUNTU)

B.1 Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (B.1.1 edo B.1.2) (**gutxienez 180 hitz**) (4 puntu)

B.1.1 GUTUNA

Arantxa Urretabizkaiaren “Denbora opari” irakurri ondoren, hausnarketa egin duzu denborari buruz eta zeure buruari galdetu diozu ea non eta zertan egongo zaren hemendik hamar bat urtera. Hori irudikatzen ari zinela, zeure buruari gutuna idaztea bururatu zaizu; zehazki, hemendik hamar urtera izango zaren horri idatziko diozu gutuna. Besteak beste, denbora-tarte horretan zu zeu eta zure ingurua nola aldatuko zareten iragar dezakezu. Gutun honetan ez da beharrezkoa helbidea zehaztea.

B.1.2 DEKALOGOIA


Egungo bizimoduaren abiada biziak erabat harrapatuta gauzka: ikasketek, lanak, gizartearen beraren bizi-erritmoak, azaleko distrakzioek... gure denbora baldintzatzen dute. Zu zeu, egoeraz konturatuta, zeure bizimodua beste era batera antolatzeke ahalegina egin zenuen, eta pozik zaude lortzen ari zaren emaitzekin. Bada, zure ingurukoentzat lagungarri izan daitezkeelakoan, denbora hobeto kudeatzeko irizpideak biltzen dituen dekalogoia sortzea bururatu zaizu. Zehazki, dekalogoak aurkezpen edo sarrera bat, irizpide edo gomendioak (ez dute zertan 10 izan) eta itxiera-paragrafo bat izan behar ditu.

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

B.2 Ondoren idazkun bat eta kantu baten zati bat dituzu. **Hautatu bietako bat**, azaldu bere esanahia eta egin lotura esanahi horren eta “Denbora opari” testuaren artean (**gehienez 50 hitz**). (1 puntu)

B.2.1 aukera



(“Ordu guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobira igortzen”)

B.2.2 aukera

Zenbat aldiz emango nizuke kafe bat hartzeko dudan denbora...

Zenbat aldiz asmatuko nuke zurekin egoteko aitzakia bat...

Zenbat aldiz entzungo nituzke zure ahotik gure istorioak...

Egunak hobeak baitira zurekin batera.

ETS, *Zurekin batera*